


Kutxa Kultur Gauak - Plaza - Terraza Protokoloa



Osasun-agintariek gomendaturiko neurri orokorrak

Saihestu kontaktua (besarkadak, bostekoa ematea...) pertsonen artean. Gutxienez 1,5 metroko distantzia gorde. Eskuen higiene etengabea. Osasun-gomendioei jarraitu. Eskuak sarri-sarri urearekin eta xaboiarekin (edo gomendatutako soluzioarekin) garbitu, birusa ez kutsatzeko edo ez ukitzeko, eta doministiku egin ondoren, beti! Ez eraman eskuak aurpegira (ahora, sudurrera, begietara). Keinu mimetikoak dira, eta batzuetan patogenoak sartzeko bideak izan daitezke.

Doministiku egitean, ez erabili eskuak, ukondoaren hutsunea baizik, edo behin erabiltzeko zapia erabili arnasketa-jariakinak biltzeko. Behin erabiltzeko zapiak erabili eta berehala bota horretarako prestatutako ontzira.

Ikuskizunera joan aurretiko neurriak

Sarrera formatu elektronikoan aurkeztu behar da. Gehienez 4 sarrera pertsonako. Baldin eta batera erosi eta batera bertaratzen badira bakarrik bermatuko dira elkarren ondoko eserlekuak. Ezinbestekoa da sarrera-txartelean adierazitako orduan agertzea festagunean, jendemetaketarik egon ez dadin. Prezioan sartutako edaria festagunearen sarreran jasoko da.

Hartu beharreko neurriak, sintomak antzemanaz gero

Bertaratu aurretik

Festagunera joan aurretik, erabiltzaile bakoitzak etxean neurtuko du bere temperatura. Sukarrik ez badu, joan daiteke festagunera. 37 gradu edo gehiago baditu, 10 minutuz itxaron eta berriro neurtuko du temperatura, eta ondoren beste neurketa bat egin, 5 minutu geroago. Behin eta berriz 37 gradutik gora badu, ez da festagunera joango, eta dagokion osasun-zentrora deituko du zer egin behar duen esan diezaioten.

Bertaratu ondoren

Erabiltzaileak, ikuskizunaren ondorengo 15 egunetan sintomak baditu (sukarra, eztula edo aire-faltaren sentazioa, batez ere), lehenik eta behin dagokion osasun-zentroari jakinarazi behar dio, eta, ondoren, Kutxa Kultur-i, egoeraren berri emateko. Bere osasun-zentroak adierazten dizkion jarraibideak beteko ditu erabiltzaileak. COVID bidezko positibo bat baieztatuz gero, Kutxari jakinarazi, covid@kutxa.eus bidez, zein emanalditan izan zen eta sarrera erreserbatu zuen pertsonaren datuak adieraziz. Bere etxean bakartu edo isolatuta geratu behar du pertsona horrek, gutxienez bi astez edo erabat sendatu arte. Oso garrantzitsua da gorputzeko temperatura neurtzea, 37° C-tik beherakoa izan behar baitu.

Ikuskizunean zehar

Ikuskizunaren uean sintomarik antzemanaz gero, berehala jakinarazi Kutxa Kultur-eko arduradunari, aurrez aipatutako protokoloa aktibatuz.

Garbiketa eta desinfektatzea	<p><u>Garbiketa:</u></p> <p>Garbiketa-zerbitzuak festagunearen eta altzarien garbiketa egingo du ikuskizun bakoitzaren aurretik eta ondoren. Hala eta guztiz ere, kontu handiz ibiltzea gomendatzen dugu, garbiketa errazteko.</p> <p><u>Aireztapena</u></p> <p>Ikuskizuna Plazan egiten bada, garbiketa-zerbitzuak egunero aireztatuko du festagunea garbiketa-lanak egiten dituenean.</p>
Norbera babesteko ekipamendua	<p>Denbora guztian maskara edo musukoa erabili beharko da.</p> <p>Babes-baliabideak behar bezala jartzeko eta kentzeko prozesu egokia jarraitu, horri buruzko edozein zalantza kontsultatu eta kontserbazio-egoera onean daudela zaindu. Pertsona bakoitzak bere babes-ekipamendua arduraz zaindu behar du, erabileraren maiztasuna optimizatuz, merkatuan hornikuntzarik ez dago eta.</p>
Gune komunak	<p><u>Komunak</u></p> <p>Komunean gehiegizko hurbiltasuna saihestu behar da.</p> <p>Komunen erabilera: komunak erabili aurretik eta ondoren, eskuak garbitu, eskutokiak eta ur-zisternaren sakagailua garbitu, garbitzeko erabili den papera bota eta eskuak berriz garbitu. Garbiketa amaitu ondoren, eskutokiak ukitu gabe ireki ateak. (Ezin bada jakin komuna okupatuta dagoen ala ez, atea edo eskutokia ukitu beharrik ez izateko identifikatzaileak jarriko dira)</p> <p><u>Igogailuak</u></p> <p>Ahalik eta gutxien erabili; ahal dela, eskailerak erabili behar dira Igogailuak erabili behar direnean, gehienez pertsona bat ibiliko da barruan, salbu eta pertsonen artean bi metroko tartea bermatu badaiteke; laguntza behar duten pertsonen kasuan, laguntzaileak ere erabili ahal izango du igogailua.</p> <p>OHARRA: gogoratu babes-baliabideak norberak erabiltzeko direla, eta are gehiago koronabirusak kutsatzeko arriskua dagoenean.</p>
Espazioaren banaketa eta erabilera	<p><u>Edukiera orokorra</u></p> <p>Kutxa Kultur Plazako eta Zabaltzako edukiera edo jende-kopurua indarrean dagoen araudiaren arabera izango da.</p> <p><u>Festagunearen banaketa</u></p> <p>Festagunearen banaketak arauzko distantziak gordetzen ditu. Gainera, sartzeko eta itxaroteko guneak egokituko dira, horietan ere arauzko distantziak gordetzeko</p> <p><u>Mugimendua</u></p> <p>Behin eserita, komunera joateko bakarrik mugitu ahal izango da.</p> <p>Distantzia da prebentzio-neurririk onena. Leku mugatuetan, hala nola korridoreetan, leihatila inguruan edo sarreran, ez gurutzatu beste pertsona batekin ibilbidean. Geldituta eta ibilian, gutxienez 1,5 metroko segurtasun-erradioa mantendu. Beharrezkoa bada, alhora baztertu eta pasatzen utzi, urruntze sozialerako 1,5 metroak gordetzeko. Hau guztia beteta ere, maskara erabili behar da nahitaez.</p> <p><u>Higienea</u></p> <p>Eskuen higiena uneoro mantendu.</p> <p>Segurtasun-distantziak mantendu.</p> <p>Festaguneko hainbat gunetan desinfektatzeko jarritako materiala erabili.</p>

Kontsumizioak

Lehen edaria sarreraren prezioaren barruan dago. Festagunera sartu ondoren, eseri aurretik jaso edari hori, langileen argibideei jarraituz. Ondorengo edariak WhatsApp bidez eskatuko dira, eserlekua adieraziz. Zerbitzariak zeure eserlekura eramango dizu edaria eta txartel bidez ordainduko duzu. Zerbitzariak bilduko ditu edalontzi guztiak ikuskizuna amaitutakoan.

Festagunera sartzea eta irtetea

Ezinbestekoa da sarrera-txartelean adierazitako orduan joatea festagunera, jendemetaketarik egon ez dadin. Sarrerak formatu elektronikoan aurkeztu behar dira. Langileen jarraibideen zain egon behar duzu zeure eserlekura joateko. Behin ekitaldia amaituta, aretoko langileen argibideen zain egon behar duzu eserlekuan, irteera mailakatuta egiteko.